



KORONARIOGRAFIARI ETA ANGIOPLASTIARI BURUZKO INFORMAZIO-ORRIA BEHAR BADUZU.

Zertan datza prozedura?

Bihotzeko kateterismoa zure bihotzak nola funtzionatzen duen jakiteko eta bertan eta arteria koronarioetan egon daitezkeen lesioak ikusteko aukera ematen digun proba da.

Proba anestesia lokala erabiliz egiten da, ziztada egingo den lekuan. Ziztada hori bide erradialetik edo femoraletik egingo da, medikuaren irizpidea jarraituta.

Kateterismoa hodi fin eta malgu bat arteria batetik sartu eta bihotzeraino eramatean datza. Bertan, substantzia bat injektatzen da (kontrastea), X izpien bidez bere bihotzak nola funtzionatzen duen eta bere arteria koronarioak nola dauden ikusteko.

Batzuetan, arteria koronarioak gaixorik daude eta angioplastia egin behar izaten da.

Angioplastia koronarioa sintomen ondoriozko lesioa dilatatzeko datza, arteria koronarioaren barruan baloi bat puztuz, lesioaren mailan. Batzuetan, sare bat (STENT) jarri behar da, arteria berriro itxi ez dadin.

Proba amaitzean, kateterrak kendu eta ziztadaren eremua konprimituko da, behar den denboran.

Nola prestatu behar dut probarako?

Komeni da pazienteak BARAURIK egotea proba egin baino 6 ordu lehenagotik gutxienez.

Hortzordea baduzu, harrera-solairuan sartzean kendu beharko duzu.

Non egingo didate prozedura?

5. solairuan, AUO Txagorritxuko D eremuan.

Telefonoz jakinaraziko zaizu aurreko egunetan, zein egun eta ordutan sartu behar duzun, eta zure ohiko tratamendua aldatu eta/edo eten egin dela jakinaraziko dizute.



Nola egingo didate prozedura?

Azterketa egiteko anestesia lokala erabili behar da.

Ospitaleratze-unitatean hartuko zaituen erizainak zain-bide bat jarriko dizu ezkerreko besoan, prozeduran zehar behar izan ditzakezun botikak emateko.

Aldez aurretik medikazioa emango dizute, lasaiago eta erlaxatuago egon zaitez.

Ohatilan etzango zaituzte harrera-gelan emango zizuten ohe-atorra jantzita, eta beharrezkoa denean soilik biluztuko duzu zure gorputza. Prozedura osoan zure bihotzaren jardueraren erregistroa ikusteko elektrodoak jarriko dizkizute, baita tentsio arteriala hartzeko mahukatxo bat eta, batzuetan, atzamarrean saturimetro bat ere.

Ondoren, oihal kirurgiko bat jarriko dizute zure gorputza estaltzeko. Halaber, ziztada egingo den eremua (eskumuturra edo iztaia) soilik utziko dizute agerian eta hor anestesia lokala emango dizute, prozedura mingarria izan ez dadin.

Prozeduraren iraupena aldakorra da, eta pazientea ohean egon beharko da hurrengo 4-6 orduetan, prozedura egin ondoren.

Zer egin behar dut probaren ondoren?

Ezingo duzu jan proba egin eta 2 ordu igaro arte.

Egindako prozedura zein den, 6-8 orduz gutxienez egongo zara ospitaleratuta, baina, batzuetan, ospitaleratze luzeagoak behar izaten dira.

HURRENGO 2 edo 3 EGUNETAN: ez zara ohiko lanera itzuliko. Ez duzu ahalegin gogorrik egin beharko, ez pisurik hartu, ez ariketa errepikakorrik egin, ziztada erradiala egiten badizute (eskumuturretik).

Ziztada-eremua zainduko duzu, eta "lehor" izango duzu. Inguru horretan mina **NORMALA** da zenbait egunetan.